

Hezkuntza sistema eta eskola elkartearen osasuna babesteko neurriak

Covid-19 pandemiaren egungo egoera



Covid-19 pandemiaren egungo egoera

Hezkuntza sistema eta eskola elkartearen osasuna babesteko neurriak

CCOOen Federazioak ikasleak eskolan bertan ikasteak duen garrantziaren alde egin du beti, kalitatezko hezkuntza eta ekitatean heztea bermatzeko. Baina, honen alde ere badago: osasun agintariek emandako protokoloak izan daitezela, administrazioaren hiru mailetan -estatala, autonomikoa eta herrikoa- hezkuntza zereginen eboluzioan eredia eta jarraitu behar den bidea ezarriko dituztenak, Covid-19 pandemiak gero eta konplexuagoa egiten duen egoeran.

Gaur egun, kutsatze indizeak izugarri altxatu dira eta komeniko litzateke, osasun protokoloak kontuan hartuz, hezkuntza Administrazioak beharrezkoak diren kontuak hartzea, hezkuntza sisteman beste geldialdi masiboa saihesteko, 2020ko martxoaren konfinamenduarekin eman zen bezalakoa, hain zuzen ere. Egoera honek Ikaskuntzari ekarri dizkion kalteak, ikasle gutxietsienei gehienbat, eta bere eguneroko lanean hezkuntzaren langilei sorrarazi dizkien arazo larriak oso handiak izan dira. Gure ustez, adostasun politiken garaia da, hiritarrengan pentsatuz, bizi diren lurraldea edozein izanda ere.

Halaber, kontuan hartu behar da, bai bertaratu gutxirekiko irakaskuntza bai *on line*-z egindakoa, muturreko salbuespen neurriak direla osasun egoeragatik hezkuntza elkarteari (irakaskuntzako langileak, ikasleak eta familiak) ezarri zaizkionak. Testuinguru honetan, eskola egutegiak luzatzeak zera adierazten du: baliabide digitalekin bidez lana burutzeak eskatzen duen esfortzu gehigarria mespretxatu eta onartzen ez dela.

CCOOen Federazioak zera uste du:

1. Ahalik eta azkarren, Hezkuntza, Ministerioa eta Kontseilaritzen Konferentzia Sektoriala deitu behar dela, lurralde bakoitzean egungo egoeraren eta kasuan-kasuan hartu beharko liratekeen neurrien azterketa zehatza burutzeko, Covid-19aren pizte berriaren eraginaren arabera.
2. Hartu behar daitezkeen neurrien artean, honako hauek

2.1. Osasun neurriak

- Egoera berriari egokitzeko, ikastetxeetarako protokoloak berrikusi eta eguneratzea. Ikastetxeetan Covid-19 agertzearen aurrean jokabide gida 2020ko irailaren 24koa da, eta egungo egoerak erabat gainditu dituen gertalekuak jasotzen ditu, bai kutsatuen kopuruagatik bai aireztatpena oztopatzen duten baldintza klimatologikoengatik.
- Prebentzio zerbitzuetarako jokaera prozedura berrikusi eta hezkuntza alorreko langileak, gutxienez, 2. Arrisku Mailan sartzea. (AM2).
- Txertatze kanpainaren aurrean, beharrezkoa da plan integral bat diseinatzea non, ikastetxeetako pertsonala baldintza berberetan sartuko den.

2.2. Pandemiaren eragina izan duten zonaldeen egoera epidemiologikoen arabeko antolamendu neurriak

2.2.1. KUTSADURA TASA HANDIKO EGOERAK

Osasun publikoaren arduradunek horrela erabakitzen dutenean, *on-linez* egiteko heziketa prozesuak gehitzea, betiere, elkarte osorako (irakasleak, ikasleak, familiak) goian aipatutako sistemaren oinarritzko parametroak bermatuz.

2.2.2. KUTSADURA TASAK, SEGURTASUNEZ, ESKOLAN BERTAN IKASTEARI, AUKERA EMATEN DIOTEN EGOERAK.

- Osasun protokoloak zorroztasunez aplikatzea, ikastetxeak birusaren transmisio lekuak izatea saihesteko.
- Kutsadura maila handiagoko anduiak sortu direla eta, zera eskatzen dugu: ikastetxeek behar dituzten irakasle eta ikasleei (bere ekonomiarekin zerikusi duten sarbide arazoengatik edo ezbeharren bat izanagatik) FFP2 maskaraz hornitzea eskatzen dugu.

2.3. Lan neurriak

4 Irakasleak, laguntzarako eta beharrezko diren hezkuntza zerbitzuetarako pertsonala kontratatzea, gelatako ratioen murrizketa eta ikasle guztien jarraipen akademikoa lortu ahal izatko, ikastetxeetako presentzialitatea -ekitatearen, inklusibitatearen ikasketen kalitatearen bermatzaile gisa- eta hezkuntza elkarte guztiaren osasuna bermatzeko azken herburuaz.

2.4. Hezkuntza elkarterako gizarte babeserako neurriak

- Egoera gutxietsiagoan dauden familiei kalitatezko hezkuntzarako eskubidearen erabilera osoa bermatzeko, beharrezkoak diren baliabide teknologikoak, ekonomikoak eta sozialak xedatzea.
- Herri mailan hezkuntzako osagarri diren gizarte programak premiaz hornitzea eta erkidego eta estatuko administrazioetan daudenekin koordinatzea.

2.5. Sektoreko langileentzat, irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalarentzat, telelana arautzeko neurriak, eskola sare osoa barne hartzen dituztenak: publikoa, pribatu itundua eta pribatua.

- Ikasle eta familientzako arreta arautzen duten protokoloak egitea eta baita urrutiko testuinguruan ordutegiak eta funtzioak.
- Osasun prebentzioarako berariazko protokoloak egitea, ergonomikoak zein arrisku psikosozialei dagozkienak, etab...
- Ekipoak, materialak, etab... eskuratzeko, laguntza ekonomikoen lerro bat sortzea, kalitatearen bermeaz *on-linez* bidezko heziketa burutu ahal izateko.

2.6. On line- eginiko heziketarako, teknologia berrietarako sarbidea bermatzen duten neurriak.

- Abiadura eta ahalmen handiko *wifiren* edo doako datu paketen *bidez*, Internetarako sarbidea bermatzea; konektibitatea murrizketarik gabe izanda eta ikasle guztiei erabilera arduratsu eta autonomorako gaitasun digitalean jardutean laguntza ematea.
- Kalitate eta zibersegurtasunezko bermeaz funtzionatuko duten plataforma digital publikoak hezkuntza elkartearen esku jartzea,

2.7. Eduki kurrikularren ikasketa bermatzeko neurriak

Curriculum-ak malgutzea, hezkuntza arrakastarako ikasle guztiek eskuratu behar dituzten ikasketak bermatuz.

2.8. Eskola azpiegiturak Covid testuinguruari (aireztapena, tenperatura baxuak, etab.) egokitzeko neurriak.

- Administrazioaren, enpresen eta langileen ordezkarien artean, modu koordinatuan, jokaera planak diseinatu daitezela, eskola azpiegiturak egokitzeko, hauen erabilera segurua, eraginkorra eta jasangarria izan dadin.
- Ikastetxeak CO2ren neurgailuz, termometroz, airea araztu eta erauzteko sistemaz hornitzea eta baita Covid-19 eta tenperatuekiko osasungarritasun baldintzak baloratzeko behar diren neurriak hartzea.
- Tenperatura baxuko egunetan, erosotasun tenperatura minimoa lortzeko, ikastetxeetako berogailuak pizturik edukitzeko esfortzua egitea.

2.9. Administrazioak behar dituen beharrezko erreformak burutzeko neurriak, prebentzio politiken bidez, Covid-19 pandemia kontrolatu eta

premiazko murrizteko.

Dokumentazio osagarria

Deseskalada eta heziketa neurriak. Maiatzaren 28.

<https://fe.ccoo.es/fe22d8c58562a8e79562e8c88a976712000063.pdf>

Ikastetxeen Osasun eta Segurtasunaren kontuetan, CCOOen proposamena. Deseskalada eta 2020-2021 ikasturtea.

<https://fe.ccoo.es/b45a4a831f285bb9a0e5e23b13027357000063.pdf>

Telelana hezkuntzaren arloan.

<https://fe.ccoo.es/623020914dc510a7777cccc77404416d000063.pdf>

Covid-19aren aurrean, Ikastetxeetako segurtasun eta osasun neurrien gida praktikoa

<https://fe.ccoo.es/149a5f74fe0533a645f1bce3bd322064000063.pdf>

